# LanHitz

## Eguneroko lanean ere euskaraz

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



# Zer da LanHitz?

Izenak berak dioenez lana eta hitza, euskara eta eguneroko lana uztartu eta indartzeko ekimena da. Datozen lerrootan azalduko dizugu zer landu, zergatik, nola eta zein laguntzarekin. Nola egin tokia euskarari zure lantokian alegia. Bideak erakutsi eta moduak erraztu nahi dizkizugu.

Ez zara bakarra izango. Egun, asko eta askotarikoak dira euskara planak dituztenak: enpresa handiak, txikiak, industrialak, zerbitzutakoak, merkantilak, kooperatibak, lurralde euskaldunetakoak nahiz erdaldunetakoak… Eta etorkizunean, gero eta gehiago izango dira.
Horiek guztiak dira gure bermerik onena!

LanHitz Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hainbat eragile sozio-ekonomikoren onespenez bultzatutako ekimena da.

Oraintxe duzu aukera!

# ...eta zer da euskara plana?

Euskararen presentzia eta erabilera handitzen lagunduko dizun plana, zure enpresaren neurri-neurrira egina, eta euskarari bere tokia egiten lagundu behar diona, bai orain, baita etorkizunean ere.

Badakigu enpresek inoiz baino plan gehiago dituztela abian. Horregatik, hainbat tresna eta jarraibide sortu, eta zuen eskura jarri nahi ditugu doan: euskararena erraz eta ondo egitea nahi dugulako.

Dena dela, planari ekiten ez badiozu, jakin ezazu aldeko hainbat ekintza ere aurrera eraman ditzakezula.



© "Argazki" artxiboa Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco / Egilea: Mikel Arrazola



# Zergatik jarri abian euskara plana?

- Zure enpresari on egingo diolako, baita zure enpresako pertsonei ere.
- Ingurunean errotutako enpresaren irudia emango duzulako, euskal gizartearekin bat datorrena.
- Enpresa lehiakorraren irudia eta berrikuntzarako gaitasuna erakusten duzulako.
- Zure euskal bezeroak hobeto zerbitzatzeko aukera delako, hurbiltasun kulturala, prestakuntza eta errespetua adieraziz.
- Gizartean euskal hiztunak gero eta gehiago direnez, arian-arian euskara merkatuko aktiboa izan daitekeelako, zerbitzugintzan batez ere.

# Nola egin euskara plana?

Euskara plana egiteko erabiltzen den moldea ezaguna da enpresa alorrean, etengabeko hobekuntzarako erabili ohi den berbera baita: PDCA zikloa alegia. Horrek esan nahi du urrats hauek eman ohi direla:

1. Planifikatzea, zer landu, nork eta nola

2. Egitea

3. Emaitzak neurtzea, datuetan oinarrituta

4. Hurrengo planean emaitza hobeak lortzeko plana birmoldatzea

Azkenik, zuk edo zure lantaldeak zuzenean egin nahi ez baduzue, badaude euskara planak egiten eta gauzatzen adituak diren enpresak. Horiengana ere jo dezakezu.





# Zure enpresaren neurriko plana

Asko dira zure enpresan hobetu ditzakezun alderdiak. Horiek guztiak bildu, ordenatu eta errazenetik zailenerako hurrenkeran jarriak dituzu Erreferentzia Marko Estandarra (EME) deritzan taxonomian. Landu nahi dituzun alderdiak hiru ardatz edo multzotan aurkituko dituzu:

1. Zure enpresaren irudian eta komunikazioan: errotulazioa, harrera, publizitatea, webgunea, etab.

2. Kanpo harremanetan: zure bezero euskaldunekin ahozko nahiz idatzizko harremana, produktua edo zerbitzua, hornitzaile eta administrazioekiko harremana, etab.

3. Barne harremanetan: informazioa eta komunikazioa, pertsonalaren administrazioa, laneko prestakuntza, ahozko harremana, lan-agiriak, etab.

EMEn goiko horiek eta beste asko ere badauzkazu (www.euskadi.net/lanhitz). Euskal hiztunak zenbat eta non diren, baliabideak, etab. aztertuz gero, zure enpresarentzat egokienak begiz jo, eta zuen neurriko plana egiten hasteko moduan izango zarete.

# Laguntzak

Laguntzeko prest gaituzu, bai diruz, baita bestelako gaietan ere. Ikus, esate baterako, 2006ko laguntzak:

## Dirulaguntzak

Kultura Sailak dirulaguntza-deialdi bidez urteko kostuaren %70era arte finantza lezake, betiere honako gai hauei lotuta:

| Diruz laguntzeko gaiak | Gehienezko muga (€/enpresa) |
|---|---|
| Lehen euskara planaren diseinua | 6.000 € |
| Itzulpenak | 8.000 € |
| Aldi bereko itzulpen zerbitzua | 3.000 € |
| Euskal hiztunen trebakuntza* | 15.000 € |
| Softwarea | 13.000 € |
| Jarraipen, ebaluazio eta birmoldatze lana* | 15.000 € |

* Gehi 2.000 edo 4.000 € /enpresa, langile-kopuruaren arabera





**Eta, gainera, badira beste laguntza batzuk ere:**

- Diagnostikoa eta zer-non landu begiz jotzeko aholkua
- Plana egin, kudeatu eta ebaluatzeko aplikazio informatikoak
- Lan-agiriak, terminologia eta fraseologia ohikoena biltzen duen banku telematikoa
- Software estandarra euskaraz
- Kontsultak egiteko bidea

Honaino iritsi bazara, hurrengo pausoa ere emateko moduan zaude: eskatu informazio pertsonalizatua eta Lan-Hitz Gida, **012** telefonoan edo **lanhitz@ej-gv.es** posta elektronikoan.

**Interneten ere eskura gaituzu:**

**www.euskadi.net/lanhitz**

# Lan Hitz

## Integramos el euskera en la empresa

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



# ¿Qué es LanHitz?

Es una iniciativa destinada a incrementar el uso y la presencia del euskera también en el mundo del trabajo. Porque es posible y ya se viene haciendo. Queremos mostrarle en qué puede mejorar, las razones, los modos y las ayudas con las que cuenta. Todo ello de manera clara y sencilla.

Porque cada vez somos más. Y de todo tipo: grandes, pequeñas y medianas empresas, industriales o terciarias, mercantiles o cooperativas, de zonas con más o menos bilingües... ¡Todas ellas son nuestra mejor garantía!

LanHitz es una iniciativa del Gobierno Vasco, de su Viceconsejería de Política Lingüística, con la adhesión de diferentes agentes sociolaborales.

# ¿Qué puedo hacer en mi empresa?

Ante todo aprovechar el tratamiento personalizado y presencial que le ofrecemos en LanHitz. A partir de ahí, teniendo en cuenta su punto de partida, podrá abordar desde una serie de acciones concretas, hasta la elaboración de un plan más ambicioso para integrar el euskera en su empresa.

Esto es, implementar una serie de medidas positivas puntuales o elaborar un plan de euskera.

El plan de euskera es un proceso a medida, dirigido a incrementar la presencia y el uso de este idioma. El objetivo final es que pase a formar parte de la cultura de la empresa, y que sea ésta, por sus propios medios, quien lo gestione como otro elemento más. Para todo ello hemos desarrollado las herramientas informáticas y la información necesaria. Todo ello de libre acceso. Porque queremos que estos planes se hagan de manera sencilla y eficiente.



© Archivo “Argazki” Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco / Autor: Mikel Arrazola



# Razones para poner en marcha un plan de euskera

- Es un proyecto a compartir entre las personas que integran la empresa, y que dotará a ésta de un perfil propio y diferenciado.
- Transmite la imagen de empresa innovadora y dinámica, capaz de afrontar nuevos retos, y acorde con su entorno.
- Es una oportunidad de mejora en la relación con el cliente, y muestra mayor cercanía cultural, preparación y respeto. Aumenta la calidad percibida al servicio o producto: aporta un valor añadido.
- Va configurándose como un activo, principalmente en el sector servicios, en la medida en que la sociedad vasca es cada vez más bilingüe.

# ¿Cuál es el proceso de un plan de euskera?

Es básicamente el utilizado en otros ámbitos: el ciclo PDCA, de mejora continua:

**1.** Planificación (objetivos, responsables, medios,...)

**2.** Ejecución

**3.** Comprobación de resultados

**4.** Ajuste

Además, ponemos a su disposición las herramientas para elaborar y evaluar el plan. Así mismo hay empresas, especializadas en este ámbito que le pueden ayudar y asesorar en esta tarea.





# Un plan a medida

Son muchos los ámbitos en los que se concreta el uso de un idioma en la empresa. Todos ellos han sido recogidos y ordenados de manera clara y sencilla en el Marco de Referencia Estándar. Los objetivos que pueden trabajarse se agrupan en tres ejes:

- Comunicación e Imagen Corporativa: rotulación, recepción, publicidad, web, etc.
- Relaciones Externas: servicio al cliente vascoparlante, verbal o escrito, aspectos del producto, comunicaciones con proveedores, administración, etc.
- Relaciones Internas: información y comunicación, administración del personal, formación laboral, documentos de trabajo, etc.

El marco en su totalidad así como otros aspectos de interés puede consultarlos en nuestra web (www.euskadi.net/lanhitz).

Una vez identificados los objetivos que le interesan, el número de personal bilingüe y distribución, tareas, recursos, etc. usted y su equipo estarán en disposición de proceder a elaborar el plan.

# Ayudas

Estamos dispuestos a ayudarle, tanto económica como técnicamente.

**Ayudas económicas**

A modo de ejemplo, he aquí la convocatoria pública de ayudas para 2006. Permite un índice de financiación pública máxima del 70% sobre el presupuesto presentado.

Los conceptos subvencionables y los límites son los siguientes:

| Conceptos | Límites |
|---|---|
| El diseño del primer plan plurianual | 6.000 € |
| Las traducciones | 8.000 € |
| Los servicios de interpretación | 3.000 € |
| La capacitación de trabajadores bilingües* | 15.000 € |
| Los recursos informáticos | 13.000 € |
| El seguimiento, evaluación y ajuste del plan* | 15.000 € |

*Más 2.000 ó 4.000 €/empresa, según el nº de trabajadores





## Ayudas técnicas

- Asesoría técnica para la realización del diagnóstico y priorización de las áreas de actuación
- Herramientas informáticas para la elaboración, gestión y evaluación del plan
- Banco telemático con los documentos, la terminología y la fraseología más al uso
- Software estándar en euskera
- Posibilidad de hacer consultas

Le reiteramos nuestra propuesta inicial: póngase en contacto con nosotros y le ofreceremos información y asesoramiento personalizado. Solicite, además, la Guía LanHitz.

**Nos encontrará en:**
Teléfono **012**
E-mail: **lanhitz@ej-gv.es**

**También nos encontrará en internet:**

**www.euskadi.net/lanhitz**